

UBM, 94-96

[KALEOTAN, KALETARTEOTAN]

Kaleotan, kaletarteotan, kalebazterrok zehar,
gizona dabil: Jose, Juan, Karmen, Rosa. Luis Mari.
Ezin diot ezikusirik egin errealitate honi.
Kaleotan zehar gizona dabil. Ingurutara zabalik
Jose, Juan, Karmen, Rosa, Luis Mari.
Ingurutara zabalik eta bere barrutan gatibu bakoitza
bere buruaren bere neurri barrutan bakoitza,
bakoitzak bere barrutan bere bizitza berea
 bere modu beretara
 bere barrua betean bizi duela,
 biziki bizi duela bakoitzak
 bizitzaren bizi-min bizitza betekoa.

Kaleotan gizona dabil.
Ezin diot bizkarrik eman
hirian denik-eta errealitate hunkigarrien honi.
Ingurutara zabalik, inguru katramila handikotan barna gizona
bizitza beteko bizi-minaren sena gidari duela arriskuen erdiz
bizitzaren senak beldur dien oztopoei biziki alde eginez alde ezinez
oztopotan behaztopatuz,
bere bizitza berearen bizi-bide bila bakoitza,
etengabeko saiaketan,
ahozabalik, itsasoan arrain, begi zabalik.
irentsian, arrainak itsasoan bezalaxe,
irentsi asekaitzean,
–iresiz, ihesiz–
linburaraziz bizitzari
bakoitzak opa duen bizi-une hartarantz bakoitza.

Bizitzaren senez beste gidari gabe
 Jose,
 Juan, Karmen,
 Rosa. Luis Mari
 Biktoriano,
bakoitza bere zoroaren zoroari adi,
 kaleotan,
 kaletarteotan
 kalebazterrotan
 trumilka
 trunbilka,
arrainak ez bezalako bizi-minez gizona.